# GURE IZKUNTZAREN EGOERA

Idiazabal Bitor

Aurtengo Epaillaren (Marzo) aurren egunetako batean irakurtzen nuan «Diario Vasco» egunkarian lan bat buruan letra aundiakin «Guipuzcoa se está castellanizando» ipintzen zuala.

Dalako artikulo au erderaz idatzita dago eta Gipuzkuko Foru Aldundiyaren aginduz «SIADECO» izeneko entidade edo taldeak egin duan asterketa eta estudio sentzuz eta ondo egiñean agertzen digute gure Euskerak daraman aldapa–bera beldurgarriya.

Gero lan au egiteko eman dituzten zenbait pauso eta erabilli dituzten metodoen berri ematen dizkigute. Eta diyote Gipuzkuko 83 erri eta Donosti 13 balladaran zatitu ondoren 60.000 millaren bat lagunekin itz egin ondoren ikusi zutela lenengo: bakoitzaren euskeraz mintzatzeko era eta urrena nola, noiz eta nun erabiltzen zuten ikusi ondoren konturatu zirala aien erantzunak egitan nabaitzen zitusten sentipenak zirala.

Aurrerago gure probintziko alderdi geienetan ibilli ondoren eta ainbat udaletxe, oficina, banko, aurrezki–kutxa, billera–leku eta sosiedadetan sartu eta plaza eta kaletako euskera giro ezberdiña jaso ondoren, azken aitorpen ontara iristen dira: Euskera dakigunetatik batez–beste jota 100 etatik 25 enbat inguruk erabiltzen degula.




Azkenian esaten digute euskera dakigun eta erabiltzen degunen artean, gorago ikusi degun bezela, izugarrizko aldia dagoela.

Eta bukatzeko Euskera egoera triste ontatik ateratzeko alegin guztiak egin bearrean arkitzen gerala, batez ere euskeraz mintzatzen geradenen artean.

Gogora datorkit jundan urteko «Oarso»rako egin nuen lantxo au. Gure Ikastolako ortxe amar bat urteko talde bi erderaz nabaitu ondoren, zer esan eta zer asmatu eziñik gelditu nintzala nion. Eta egun auetako batean irakurtzen nuan Donostiko ikastola bateko ikasle talde batekin era berdintsuan gertatutako kontua.

Iruditzen zait, gorago aipatzen detan artikulua eta bi ikastoletako gertaera auek ikusi ondoren, garbi ikusten da euskeraz jakitea eta ikastea bakarrik ez dirala aski gure izkuntza, gaur aiñean beintzat, bizirik irauteko lain.

Aspaldi ikasi nuan eta gaurko ere balio duala·deritzait Kepa Enbeita «Urretxindor» bizkaitar jatorraren bertso gogoan garri onek.

«Ikasi deigun Euskera prantses£Naiz ingelesen elia (izkuntza)
Ikaste ori ontzat daukagu
Bañan lenengo guria
Izkuntza danak gur garri dira
Aitortu nai det egia
Bañan guretzat gur garriena
Euskera maitagarria»

Pentzatzen det gure izkuntzaren gaitz eta oker geienak dexente arinduta gelditukio lirakela, bertso ontan dion bezela eta arek aiñean Euskera gurtu eta maitatuko bagendu.

Ondo daude gaur egun izkuntzaren alde egiten diran alegin eta lanak baño itz egin eta mintzatzeari usten badiogu beldur naiz alperrikako gertatuko ez otediran.

Igaz baño jai alai eta paketzuagoak izango ditugulakoan danok agurtzen zaituztet.

# IMPRESIONES LITERARIAS

DAVID MARIA TELLECHEA SANTAMARTA

Cuando la tarde, verde, huía tras la colina. Y los vientos acarreaban lluvias, envueltas en gris. Y por la vereda, piedras y barro, mugían los bueyes, manchas marrones, bajo las hayas. Entonces, el rojo crepuscular, escondido entre las nubes, parecía un fanal en el tormentoso océano del cielo. Cuyo azul, desvaído y a jirones, se tornaba negro, poco a poco, en el umbral de la noche que presagiaba tempestad.

Un rayo, lejano y casi amarillo, seccionó con violencia, el horizonte. Y los pájaros callaron. Y el silencio, se hizo noche al fin.

Con suma lentitud, al principio, comenzó a llover. Luego, estalló el temporal, con sonidos de torrente. Y olor a tierra y helecho.

Y el niño, de pié tras la ventana, sentía. Que la luz de los relámpagos, alumbraba sus entrañas. Y sus ojos miraban, La obscuridad humedecida, que la notaba como propia, pegada a la piel. Del alma.

Después, la furia amainó. Y el silencio se desparramó por el bosque. Y en el pueblo, se oyó la voz del reloj. Que desde lo alto, en la iglesia, exhalaba anhelos de bronce.

Todos dormían, ya. El niño abrió la cartera. De trapo de abuela amorosa. El sueño le había abandonado con la tormenta, en la lejanía. Se escuchaba el trueno. Sensaciones extrañas, y familiares, a la vez. Luces, ruidos y sonidos. Y silencio. La bombilla, pálida, descubría sombras en los rincones. Y el lápiz, mástil de la imaginación, comenzó a lacerar la quietud. De la habitación, en cuya cama, el muchacho escribía, sentimientos.

Al rato, el sopor invadió la estancia. Y el niño se durmio.

Junto a la almohada, en el cuaderno con olores a goma de borrar y escuela, varias hojas se habían convertido en literatura. Cuando ya,